

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

URDANETA 22



Lucas Aldai1917.

Deskripzioa

Duela gutxi egin hustuketaren ondoren, 22 zenbakiak xurgatu egin du 24ko ataria, eta mehelin arteko partzelarako zein kale kantoikorako da orain. Beheko solairua, goiko lau solairu eta atzeraemandako beste bi dauzka. Fatxadak harri naturalez eta artifizialez eginak dira, testura desberdinez, lakarrena horma-ataletan, eta taillatua, berriz, azpadura eta bao buruetan; balkoi azpiko mentsulen neurria nabarmentzen da. Beheko solairuak harlanduzko piezak dauzka oraindik, eta arku beheratuak eta mentsula joko nabarmentzen dira, azken hauek giltzarri gisa ere txertatuta daudela dobela artean. Birgaitze berean jatorrizko burdin lana erreproduzitu zuten, eta kantoiko begiratokia ere berreraiki, gainazal emokatuz; eta ildo berari jarraikiz, aluminiozko erdiko begiratokia egoki aldatu zuten.

D mailaren berariazko babes araubidea

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: jasodura atzeraemanak.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: harlandua.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: ez dago horrelakorik.
- 4- Nahitaezko lehengoratzak: ez dago horrelakorik.